



HEZKUNTZA SAILA
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión de Personal

EBAZPENA, 2019ko ekainaren 3koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. 2019ko martxoaren 1eko ebazpena aldatzen duena. Azken honetan arautzen da 2019/2020 ikasturterako: zerbitzu-eginkizunak eta klase-orduen 1/3ko murrizketak baimentzea osasun arrazoiak direla eta.

2019ko martxoaren 1eko ebazpenaren bidez, osasun arrazoiak larriengatik, senideen gaixotasun larriengatik eta hautetsia izateagatik egindako deialdia argitaratu zen.

Ebazpenaren 5. Atalaren 3.paragrafoak ondorengo ezartzen du: *“Deialdi honetan onartutako zerbitzu-eginkizunari uko egin ahal izango zaio, 2019ko maiatzaren 31era arte soilik (egun hori barne).”*

Ikusita 2019ko maiatzaren 21eko ebazpena, deialdia ebatzen duena, ekainaren 3an argitaratu dela, aipatutako epea luzatu behar dela uste da. Ondorioz, onartuta izan diren zerbitzu eginkizunei uko egin ahal izango zaie datorren ekainaren 10ra arte (egun hori barne).

79/2017 Dekretuak, apirilaren 11koa, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, bere 10 artikuluan xedatutakoa kontuan izanik,

EBATZI DUT

Bakarra.-Zerbitzu eginkizunari uko egiteko epea luzatzea 2019ko ekainaren 10ra arte (egun hori barne).

ERREKURTSOAK

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 121. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean ebazpena argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko ekainaren 3an.

JON AGUIRRE HUERGA
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA